

LIBURUTEGIKO ARRATSALDEKO KONTSULTA-ZERBITZUA

Pertsona batzuek liburutegiko kontsulta-ordutegia zabaltzeko eskaera egiten digutenez, bereziki hemen bakarrik gordetzen diren obrei dagokienez, sistema bat prestatu behar dugu aukera hori jendeari eskaini ahal izateko eta, hartara, ezarritako ordutegi orokorrean bisitatu ezin gaituztenei sarbidea errazteko.

NAOren ikerketa-aretoa zenbait egunetan 17:00ak arte irekita egoten denez, arrazoizkoena dirudi egoera hori aprobetxatzea zerbitzua ordutegi horretan eta areto horretan eman dadin, ondorengo prozedurari jarraituz:

1. Zerbitzua 15:00etatik 16:45etara bitartean eskainiko da, artxiiboak 17:00ak arte kontsulta-ordutegia duen egunetan.
2. Interesdunak aldezturik eta idatziz eskatu beharko du arratsaldeko kontsulta-zerbitzua, posta elektronikoz (mlosarcs@navarra.es liburuzainaren helbidera edo, hura ez badago, archivogeneral@navarra.es helbidera), ohiko postaz, telefonoz (848 42 46 67) edo aurrez aurre. Eskabidean, zein egunetan eta ordutan joan nahi den adieraziko da, baita kontsultatu nahi diren obra zehatzak ere.
3. Liburuzainak eskatutako liburuak prestatuko ditu, kontuan hartu beharreko egoera bereziren bat gertatzen bada egokituz jotzen dituen oharrekin batera (adibidez, ale bat ezin dela fotokopiatu edo digitalizatuta dagoela, eta kopia inprimatuak atera daitezkeela PDFtik, etab.) ikerketa-aretoko arduraduna jakinaren gainean egon dadin.
4. Zerbitzu hau **NAO-ko liburutegian** bakarrik gordetzen diren edo gutxienez Iruñerriko Liburutegi Publikoaren Sareko liburutegi bakar batean ere ez dauden **lanen** kontsultara mugatzen da, argitaratze-data edozein dela ere. Iruñeko eta Iruñerriko liburutegi batean, arratsaldeko ordutegiarekin, kontsultatzeko edo etxean maileguan hartzeko aukera badago, interesdunari jakinaraziko zaio, kontsulta egin dezan liburutegi horretan.
5. **Zerbitzu honetatik kanpo gelditzen da prentsa-kontsulta**, kontserbazio arazoengatik.
6. Kontsultatutako lanen erreprografia-eskaerak liburutegi-zerbitzuak izan ohi dituen baldintza beretan miretsiko dira.